

"Irakurmendi" liburu-bilduma

Iñaki Mendiguren

Euskara ikasten ari direnentzako "Irakurmendi" liburu-bildumaren berri ematen digu ondorengo artikulua. Bildumaren koordinatzaileak proiektuaren azalpen orokorra egiten du: bildumaren sorrera bultzatu zuten arrazoiak, proiektua gauzatzeko eman ziren arrazoiak, liburuen edukinari buruzko argibideak, mailaketa nola egiten den, liburuen formatoari dagozkion hainbat xehetasun, itzulpen- edo egokitze-lanaz ohartxo batzuk eta beste zenbait jakingarri.

Definizio orokorra

Irakurmendi, euskara ikasten ari diren gazte eta helduentzat, zailtasunaren arabera mailakatutako irakurgaiak eskaintzen dituen liburuska-bilduma da, *Elkarek* argitaratua.

Proiektuaren zergatia

Hizkuntza bat ikasteko oso garrantzitsua da irakurtzea, baina hau prozesu luze bat da, hizkuntz ezagupenen arabera urratsez urrats egin beharrekoa, material egokiaz une bakoitzean.

Aspaldiko kontua zen, euskara ikasten ari zirenak, nahiz eta gazte edo helduak izan, ume-umeentzako ipuinez baliatzen zirela, hizkuntz maila apalago edo errazagoa aurkituko zutelakoan. Baina, noski, gai aldetik gehienetan ez zitzaizkien interesgarri edo motibagarri gertatzen; eta hizkuntz edukinen aldetik ere bi gauza ezberdin dira.

Beraz, irakurgai erraztu edo mailakatuen beharra nabaria zen euskaltegi eta euskara irakasten zen edonon; esate baterako, irakaskuntza ertainetako A eta B ereduak ikasle eta irakasleen artean.

Hain zuzen ere, 1987ko maiatzean, egoera honen kezka bizia zuen *Jose Antonio Mujikak* aurkeztu zuen *Elkaren* honelako bilduma bat sortzeko proposamen-txostena. Argitaletxeari interesgarri iruditu zitzaion eta proiektua prestatzeko lehen taldetxo bat eratu zen, neure kontu geratu zirelarik koordinazio-lanak.

Proiektua gauzatzeko urratsak

Aurrez argitaraturiko materialaren azterketa

Aurrez ere bazegoen honelako zenbait material euskaraz argitaratua, eta neurri batean baliotsua, zalantzarik gabe. Baina edonola ere gutxi zen, batzuetan bildumak bide-erdian gelditu bait zeuden, jarraipiderik gabe. Beste batzuetan, edukin edo argumentu aldetik ahul eta interes urrikoak gertatzen ziren. Eta, zenbaitetan, euskara errazaren bila, hizkuntza bortxatuegi edo artifizial samarra gertatzen zela iruditzen zitzaigun.

Beraz, helburu nagusi hauek proposatu ziren bilduma berrirako:

* *Gai aldetik, interesgarri eta erakargarriak izatea irakurle gazte edo*

nagusientzat. Ikasleek asko eta gustora irakurriz, oharkabeen bezala, hizkuntzaren oinarriak berenganatzea izan behar zuen, eta da, irakurgai hauen helburua.

- * Hizkuntzari dagokionez, errazagoetatik zailagoetara mailakatuak, baina betiere ahalik eta naturaltasun handienaren bila. Luze-zabaleko irakurketa edo “estentsiboa” zen liburuska hauen helburua, eta erraz samar eta eten gehiegirik gabe irakurri eta ulertzeko moduko testuak eskaini nahi zitzaizkion irakurleari, nori bere mailara egokitutakoak, alegia.

Atzerriko hizkuntzetako materialaren azterketa

Beste hizkuntza batzuetan, ingelesez bereziki, horrelako material asko dagoenez (Graded Readers, Guided Readers, Easy Readers...), euskaraz zerbait guztiz berria sortzen hastea baino egina dagoen horretan oinarritu eta hori euskarara egokitu edo moldatzea errazagoa eta seguruagoa izango zela iruditu zitzaigun.

Atzerriko zenbait argitaletxeren materialak aztertu ondoren, begiz jotakoen artean, birekin gauzatu ahal izan genituen harremanak, *Oxford University Press* eta *Heinemann*ekin, orain arte euskaraturiko 20 liburuskak bi argitaletxe hauen fondoetakoak izan direlarik.

Izan ere, *itzulpen-eskubideak lortzea* ez da sarritan bide erraza gertatzen, nahiz eta irakurlea askotan ez jabetu honetaz. Alegia, pozik euskaratuko genukeen zenbait material iristezin gertatzen da, baldintza edo mugapen asko medio dela.

Aztergai dugun material honetan bi motatako liburuskak daude: batetik, bilduma bereziotarako espresuki eta bereziki idatziak, dauden daudenean, hizkuntza erraztuaz, etab.; eta horrelakoak itzultzeko ez dugu eragozpenik izan. Baina beste batzuk, literatura orokorreko obra ospetsu edo “best-seller”en berridazketa edo laburpen egokituak dira eta hauetako batzuek, modernoak batez ere, arazo gehiago dute (Somerset Maugham edo Steinbeck, esate baterako).

Euskararen programazioen azterketa

Zenbait material aukeratu ondoren, eta euskarazko bertsioak egiten hasi aurretik, Hezkuntza Sailak BBBrako eta HABEk Euskaltegietarako egindako euskararen programazioak aztertu genituen, hizkuntz edukinen (izen sintagmaren, aditzaren, sintaxiaren...) progresioaz hobeki jabetzeko.

Euskarazko bilduma: "Irakurmendi" *Ezaugarriak*

- Bildumak homogeneousotasuna behar duen arren, material ezberdina sartzea izan dugu beti helburu; banako irakurle edo ikastaldeen beharrak eta zaletasunak ezberdinak izan ohi direnez, bakoitzak izan dezala non aukeratu.
- *Literaturtasunari* dagokionez, denetik dago: badaude balio literario nabariko idazlanen bertsio laburtuak (Sherloc Holmes, T. Hardy, O. Wilde, Achinua Achebe, H.G. Wells, E.A. Poe...) eta badira, gehiagoko traspazentziarik eta buruko minik gabe, denborapasa irakurtzeko liburuskak. Baina bilduma hauen helburua ez da irakurlea literaturan murgiltzea, ez ahaztu!
- *Jeneroari* dagokionez, prosazkoak dira denak, ez dago poesia edo antzerki-libururik orain artean.

- *Hizkera-mota*, lehen edo hirugarren pertsonako narrazioa da nagusi, normalean deskripzioak ez dira luze eta konplexuak, eta elkarrizketa ugari dute.
- *Gai* aldetik ere desberdintasuna da nagusi: detektibe edo poliziakoak, amodiozkoak, izu-istorioak, "Western" edo "Oeste"koak, fikziozkoak...
- *Istorioen kokalekuaz*, berriz, Europa (Ingalaterra), Ertekiialdea, Afrika, Ipar Amerikako Mendebaldea... agertzen dira, bereziki saiatu garelarik kultura ezberdinak kontuan hartzen.
- *Luze-zabaleran* ere badira laburragoak (60 orrialdekoak) eta luzeagoak (110-120koak). Batzuk ipuin ezberdin eta autonomoz osatuak daude (Sherlock Holmes, Izu-istorioak, Misteriozko ipuinak...).
- Beti saiatu izan gara ingelesez ongi saldu direnak aukeratzeko, ez badiote behintzat kultur arazo berezirik sortzen euskal irakurleari.

Liburuen mailaketa

Beste hizkuntzetako materiala aztertuz, honetaz ez dagoela jokabide homogeen eta zorrotzik konturatu ginen. Mailakatzea orientabide huts dela eta arbitrario samarra, edo hautazkoa behintzat. Noski, bada oinarritzko zerbait, alegia, errazenetik zailenera mailakatu behar direla, bildumak bere baitan koerentzia edo homogeneotasuna behar duelarik; baina, gainerantz, 4, 6 edo 8 maila egin... horretarako ez dago araurik.

Irakurmendin 3 maila nagusi aukeratu genituen:

- **Beheko maila** (Sail berdea) 1.000 hitzetarainoko lexikoa: Euskalduntzeko prozesuaren lehen urratsetan irakurtzeko.
- **Erdiko maila** (Sail horia) 1.000-1.500 hitzetako lexikoa: Euskaltegieta 5. urratsetik edo BBB eta L Hrako programazioaren 4. mailatik aurrera irakurtzeko.
- **Goiko maila** (Sail gorria) 1.500 hitzetatik gorako lexikoa: Euskaltegieta 7. urratsetik edo BBB eta L Hrako programazioaren 6. mailatik aurrera irakurtzeko.

Baina maila horietako bakoitzean, liburuskara errazagoek izartxo (*) bat dute, eta zailagoek bi (**). Horrela, azkenean, 6 maila izango genituzke.

Mailakatze hauean, oro har, batetik *informazioa* kontrolatzen da, behar-beharrezkoa bakarrik eta ahal den argien emanez. Eta bestetik, *hizkuntz edukien progresioa* zaintzen da, lehen aipaturiko programazioen arabera. Baina zein da behe-mailako izar biko liburuskaren eta erdiko mailako izar batekoaren arteko aldea? Oso txikia edo erlatibo. Nola erabakitzen da titulu bat maila batean eta bestea beste sartzeko? Subjektibo edo arbitrario samarra gerta liteke. Edonola ere:

- Zenbait aldaketa gorabehera, gehienetan, jatorrizko testuak berak erabakiorki ezartzen du euskarazko testuaren maila ere.
- Bestalde, itzultzaileak kontuan izan dituen hizkuntz edukinek ere maila bat auresuposatzen dute.

- Eta, azkenik, koordinatzailearen eginkizuna da testu guztien jarraipena egitea, horrela bere ikuspegi globalak eta sen edo intuizioak lagundu behar diotelarik testu bat kokatzen, bai argitaraturik dauden besteekiko, bai plan osoko sei maila orokorren baitan.

Lexiko-kopuruarena ere ez dago zehatz hartzerik; orientabide hutsa da. Ingelesek ere askoz landuagoak dituztelarik arazo hauek (hitx erabilienean maiztasuna, etab.), ez dute zehatz eta zorrotz jokutzen. Are zailagoa da euskaraz.

Aipatzen diren ikasmaila edo urratsak ere orientabide gisa hartu behar dira, gero aldagai asko sar bait daitezke. Irakurleari agertuko zaio, seguraski, oraindik klasean intentsiboki landugabeko aditz-forma edo egituraren bat, edo ezagutzen ez duen hitzen bat (orribarreneko hiztegitxoaz gainera). Ez dio axolarik! Ulermen pasiboa erabilpen aktiboa baino lehen lortzen da eta, testu bat globalki jarraitu eta gozatzeko, ez dago zehatz-mehatz ñabardura guztiez jabetu beharrik.

Liburuaren formatoa

- *Neurria*: 18 x 11 cm.
- *Azalak*: Ez dira jatorrizkoak, euskarazko ediziorako sortuak baizik, nahiz eta batzuetan, ez beti, jatorrizkoak barnean dituen marrazki edo elementu grafikoak aprobetxatu izan diren, koloreztatu eta azalak egiteko. Nire ustez, azalak bizi eta erakargarriak gertatzen dira, ingelesek behin baino gehiagotan eman dizkigutelarik zorionak, eta honen meritu osoa *J.F. Igartuari*, *Elkareko* diseinatzaileari, dagokio.
- *Barneko marrazkiak, mapak*, etab. jatorrizko testutik jaso izan dira. Orain artean ez da euskarazko bertsiarako propio asmatu sartu. Kontuan izan behar da, irakurlego-motaren arabera (ikasle gazteak, etab.), oso garrantzitsua dela liburuska hauek ahalik eta merkeen ateratzea (500 pta. inguru orain).
- Printzipio orokorra da, bestalde, behe-mailako liburuskek goikoek baino testu idatzi gutxiago eta elementu grafiko gehiago (mapa, marrazki...) izatea. Batzuetan, apaingarri eta aringarri hutsak dira hauek. Beste batzuetan, testuarekin lotura handiagoa dute eta testua argitzeko helburu garbia.
- Bildumaren *logotipoari eta izenari* dagokienez ez dute jatorrizkoekin zerikusirik, bereziki asmatu bait ziren euskarazko bildumarako. Mendigoizaleak ongi daki goreneko gailurretara iristeko aurrez tontor txikiagoetatik hasi beharra dagoela. Ez al da irakurketa-prozesua mendiak igotzea bezala? Hortik *Irakurmendi* izena eta hiru mailatako menditxoaren logotipoa. Bakoitzari bere gaitasun eta entrenamenduaren arabera desafioak bota behar zaizkio, poliki-poliki gero eta gorago joan ahal izateko.
- *Orribarrenetako hiztegia*: Zergatik orrialde bakoitzaren barrenean, eta ez kapitulu-amaieran edo liburuaren bukaeran, beste bilduma batzuetan bezala? Erosotasun eta praktikotasunez. Irakurlearentzat aspergarri da ezezagun zaizkion hitzen esanahia bilatzeko orriak pasatu beharra; askoz errazagoa, ordea, orri-barrenean begiratzea.

Zergatik esanahia gaztelaniaz, eta ez euskara hutsean? Hemen ere praktikotasunez, eta helburuaren amoregatik. Irakurle-mota kontuan izanda, gehienetan ezinezkoa litzateke berari ezagun edo errazago zaion sinonimoren baten bidez esanahia zehatz ematea. Azalpen edo definizioak ematen hasiz gero, oharrek leku asko hartuko lukete edo oso hitz gutxi argitu ahal izango litzateke.

Eta liburuska hauen helburua azpimarratu nahi nuke hemen. Helburua ez da testu-lanketa intentsibo edo zehatz-mehatza egitea, baizik eta irakurleak, bere mailaren arabera, ahalik eta gehien irakurtzea, honetarako atseginez eta oztopo gutxiz egin behar duelarik, hiztegiara asko begiratu beharrik gabe, etab.

Beraz, helburu hau kontuan izanda, baita errealitate soziologikoa ere –alegia, irakurle ia guztien ama-hizkuntza gaztelania izango dela–, aurreritzi ideologikoagoak gaindituz, esanahia gaztelania hutsez ematea erabaki zen.

Zein hitz eta esamolderen azalpenak ematen dira? Neurri batean, hau ere aski subjektiboa gertatzen da. Batzuetan, garbi ikusten da hitz jakin bat ez dela erabiliegia, testuan garrantzitsua dela eta esanahia ematea komeni dela. Beste batzuetan, zalantza gehiago izaten da. Gainera, irakurle bakoitza da mundu bat: ikasmaila berean ihardun arren, batzuek beste batzuek baino idatziaren ulermen handiagoa izango dute, erraztasun, zaletasun edo praktika gehiago dutelako.

Oro har, euskarazko bertsiotan ingelesezkoetan baino dexente hiztegi gehiago ematen da. Izan ere, irakurgai ingelesek, beren abantaila guztiekin, badute muga bat: mundu osoan zehar erabiltzen dira eta ama-hizkuntza oso ezberdinetako irakurleak dituzte; beharturik daude, beraz, azalpenak ingeles hutsez ematera, baina oso kopuru txikiarenak, halabeharrez!, ezinezkoa bait da hitz askoren azalpenekin orrialdeak betetzea. Eta sarritan kultura aldetik oztopo izan daitezkeen hitzak argitzen dituzte (europar edo kristau-kulturakoak afrikar edo asiarentzat). Ingelesa ikasteko horrelako materiala erabili duenak badaki glosario horien laguntza oso mugatua dela gehienetan. Euskaraz, laguntza gehixeago eman nahi izan da. Ea berez dugun irakurzaletasun urriari ez diogun behintzat eragozpen handiagorik eranstean.

Itzulpen-lana Edozein itzulpen-lan egitean (edo ahoz nahiz idatziz edozein mezu sortzean), funtsezkoa da zertarako edo norentzako den kontuan izatea. Kasu honetan, euskara bigarren hizkuntza bezala ikasten ari direnen munduarekin itzultzaileak loturaren bat izatea oso garrantzitsua iruditu izan zaigu.

Itzulpen-lanetan esperientzia ere behar-beharrezkoa da. Kasu honetan, itzulpen-lana, egokitze- edo moldatze-lana gehiago da azkenean; alegia, hemen ez da planteatzen literatur lan klasiko bat itzultzerakoan behar den zintotasun- edo zehaztasun-maila. Askatasun gehiagorik hartu behar da zeregina, testuaren helburu didaktikoaz jabetu behar da garbi... eta, gezurra badirudi ere, esperientzia handiak bakarrik ematen du gaitasun hau.

Hasieran, lau pertsona hasi ginen itzulpen-lanetan, baina poliki-poliki kopuru hori murriztu egin da. Batetik, bildumak bere martxa hartu ondoren,

IRAKURMENDI BILDUMA	Jatorrizko bertsoia			Euskarazko bertsoia					
	Laburtua	Argitalpen-urtea	Argitaratzailea	Argitalpen-urtea	Orain arte argitaraturiko ale-kopurua	Egungo prezioa	Orralde-kopurua	Itzultzailea	Galaren mamia
SAIL BERDEA	Jat.	1975	Heinemann	1989	3.000	425	62	I. Mendiguren	Giza interesekoa
	Jat.	1986	"	1989	5.900	425	36	J.A. Mujika	"
	Jat.	1979	"	1989	7.900	425	65	"	Misterio-eta izu-abentura
	Jat.	1983	"	1990	3.000	425	60	I. Mendiguren	Hiru istorio beldurgarri
	Jat.	1975	"	1990	5.100	425	66	J.A. Mujika	Krimen eta polizi abentura
	Lab.	1982	Oxford U.P.	1988	15.000	425	55	J.A. Mujika	Lau detektibe-istorio
	Lab.	1982	"	1988	12.000	425	71	"	Bost detektibe-istorio
	Jat.	1975	Heinemann	1988	11.900	425	65	Ander Otermin	Krimen eta detektibe-abentura
	"	1979	"	1988	14.900	425	60	J. A. Mujika	Krimen eta detektibe-abentura
	Lab.	1973	"	1988	6.000	500	95	"	"Oeste" ko klasikoa
	Lab.	1979	Oxford U.P.	1989	3.000	550	137	I. Mendiguren	Zaldi-lasterketak, matiak, amodioa
	Jat.	1973	Heinemann	1990	3.000	500	95	"	Krimen eta polizi abentura
	Jat.	1974	"	1990	3.000	500	99	"	Krimen eta polizi abentura
SAIL HORIA	Lab.	1974	"	1991	3.000	550	110	J.A. Mujika	Giza interesekoa (Afrika)
	Lab.	1979	Oxford U.P.	1988	5.100	550	126	Ander Otermin	Amodio-nobeia klasikoa
	Lab.	1979	"	1989	3.000	550	118	Inaki Ihurrieta	Amodioa eta giza harremanak
	Lab.	1989	"	1991	3.000	425	67	I. Mendiguren	Etika, estetika...
	Lab.	1972	"	1991	3.000	550	132	J.A. Mujika	Zientzi fikzioa
	Lab.	1975	"	1991	3.000	-	85	I. Mendiguren	Bost misterio-ipuin
	Lab.	"	"	1991	3.000	-	80	"	"
	Lab.	"	"	1991	3.000	-	80	"	"
SAIL GORRIA	Lab.	"	"	1991	3.000	-	80	"	"

ez delako hainbeste pertsona behar. Bestetik, ukaezina da bildumak homogeneotasun handia behar duela, eta zenbat eta esku ezberdin gehiago, orduan eta zailago edo neketsuagoa dela koordinazio-lana.

*Zergatik ez euskaraz
sortu?*

Norbaitek galdegin lezake ea beti atzerriko testuetan oinarritu ordez, ez ote genukeen honelako irakurgairik euskaraz *sortu* beharko.

Ez da, gure aldetik, zeharo baztertua dagoen aukera, baina berehalako helburuen artean behintzat ez dugu horretarako asmo zehatzik. Zergatik? Euskarazko sorkuntza literatur maila normalean ere oso indartsu ez dabilela ematen du; gainera, *Irakurmendikoak* bezalako testuak sortzea, dituzten baldintza eta mugapenengatik, ez zaio, noski, erakargarri gertatzen idazle profesionalari. Eta, bestalde, testu interesgarri edo bizi samarrak behar dute izan, ez dago edozein zozokeria argitaratzerik, “agindu” zaielako bakarrik ikasleek irakur ditzaten.

Bide batez, esango nuke Euskal Herrian itzulpenaren kontrako aurreritzi dextente egon dela, eta ulergarria izanik ere neurri batean –sari itzulpen txarrak zirelako, alegia–, egoera hori badoa poliki-poliki gaintituz eta hobetuz normalizazioaren bidetik. Beraz, konplexu gutxiago, eta itzulpen (eta gure kasuan, egokitze- eta moldatze-lan) onak egitea eskatu behar da.

Edonola ere, norbaitek honelako testuak euskaraz sortzeko gogo berezirik balu, jar bedi argitaletxearekin harremanetan, eta aztertuko dugu gaia.

Gainerantzean, eta oraingoz irakurleen aldetik oso harrera ona duenez bilduma honek, orain arteko bidetik jarraitzeko asmoa dugu, kanpoko argitaletxe gehiagorekin lan eginez seguraski.

Eta liburuetan egin ohi dugun erregu berberaz amaitu nahi nuke, alegia, “liburuska hauen irakurle eta irakur-erazleei (irakasle, etab.i) eskertuko geniekeela berauei buruzko iritziak jakin eraztea”. Hala bedi.